

## ZIBERSEGURTASUNAREN ARLOAN KONTZIENTZIATZEKO JARDUNALDIAK EUSKO LEGEBILTZARREAN

---

- **Kontzientziatzea ezaugarri garrantzitsuenetako bat da ziberiruzurren biktima ez izateko orduan.**
- **Ziberdelitugileek segurtasunarekin horren kontzientziaturik ez dauden erakunde eta enpresak erasotzen dituzte bereziki.**
- **Ertzaintzak 12.785 delitu informatiko erregistratu zituen 2018an, eta horrek esan nahi du delitu horiek % 38 egin dutela gora aurreko urtearen aldean.**

Bi helburu nagusi betetzeko sortu zen BCSC. Alde batetik, Euskadiko gizartean zibersegurtasun neurriak aplikatu daitezzen sustatzeko, esparru horretako heldutasun-maila areagotze eta gizarte seguruagoa sortze aldera; eta, bestetik, Euskadin esparru horretan egiten den guztiari ikusgarritasuna emateko.

Lehenengo xedeari dagokionez, martxoaren 6an eta 20an, BCSCek hainbat [sentsibilizazio jardunaldi](#) antolatu zituen [Eusko Legebiltzarrean](#), honako ideia hau azpimarratzeko: guztiok izan gaitezkeela zibereraso edo zibermehatxuren baten biktimak, bai eta kontzientziarioa funtsezkoa dela ere, eraso eta mehatxu horien biktima ez izateko.

Jardunaldietan, honako modulu hauek eman ziren:

- Zibersegurtasunerako sarrera.
- Zibersegurtasuna bulegoetan.
- Zibersegurtasuna kudeatzea.

Modulu horietan, ziberdelitugileek normalean erabiltzen dituzten teknikei dagokienez ohartarazi zen, eta, horrez gain, aintzat hartu beharreko zenbait oinarritzko jarraibide irakatsi ziren, teknika horien biktima ez izatea hobeto saiheste aldera.

### **Kontzientziarioaren garrantzia**

info@bcsc.eus | 945 010 059

Arabako Parke Teknologikoa  
Albert Einstein. 46, 3 – Eraikina: E7 01510  
Gasteiz



2018an, Ertzaintzak [12.785 ziberdelitu](#) kudeatu zituen, eta horrek esan nahi du delituok % 38 egin dutela gora aurreko urtearen aldean. Delitu horietatik guztietatik, nabarmentzekoak dira [«CEOaren iruzurra» deritzonari lotutako 40 kasuak](#). Iruzur hori dela eta, Euskadiko enpresek 2 milioi euro inguruko galera ekonomikoak izan zituzten. Galera horien batezbestekoa 50.000 eurokoa izan zen, baina kalkulatuta dago batezbesteko inpaktua 160.000 euro ingurukoa izan zela. Izan ere, orain dela gutxi egindako proofpoint [ikerketa](#) baten arabera, horrelako iruzurrek % 476 egin dute gora azken urtean, bereziki kriminalek jasotako inbertsio-itzulera handia dela eta.

Aintzat hartu behar da eraso gehienak modu masiboan eta bereizkuntzarik gabe egiten direla. Helburua da onurarik handiena lortzea, arriskua ahalik eta txikiena izaki. Ziberdelitugileek helburu bera dute, eta, hala, segurtasunarekin horren kontzientziaturik ez dauden erakunde eta enpresak erasotzen dituzte, itu errazagoak baitira. Jakin beharra dago guztiok izan gaitezkeela eraso horien biktimak, eta, horrexegatik, lan egin behar da giza faktorea kate horren begiztarik indartsuena izan dadin. Izan ere, zibermehatxu gehienak saihestu litezke kontzientziazio egoki baten bitartez.

Jardunaldi horien xede nagusia da zibersegurtasunaren esparruko arrisku ohikoenei dagokienez kontzientziazioa, bai eta erakundeek zibergertasun neurriak aplikatu ditzaten sustatzea ere; hala, babestuago egongo dira, eta, horrenbestez, mehatxuen eraginetik urrunago kokatuko dira. Era berean, horrelako teknologiak aplikatzeak ahalbidetuko du balio erantsia izatea nazioarteko merkatu guztietan Euskadiren lehiakortasun- eta berrikuntza-gaitasunak mantentzeari dagokionez.

Kontzientziazio jardunaldiren bat eskatzeko, sartu honako esteka honetara: <https://www.basquecybersecurity.eus/es/otras-actividades/sensibilizacion/>.

[info@bcsc.eus](mailto:info@bcsc.eus) | 945 010 059

Arabako Parke Teknologikoa  
Albert Einstein. 46, 3 – Eraikina: E7 01510  
Gasteiz

